

Audioaren erreferentzia: Bagoaz A1B24 **Amaiaren nobioa?**

Maila: A1

Lexikoa:

Ikasi/irakurtzearekin lotutakoak: papera, apunteak, pantaila, kopia, eskaneatu, fotokopiatu, kopiagailu, e-book

Adierazpide linguistikoak:

Izen-sintagma, deklinabidea: NORK pertsona-izenen deklinabidea. EDUKI aditz trinkoa, 3. pertsona, singularrean eta pluralean.

Helburuak:

Entzumenean

Lagunak, esaldi sinpleak erabiliz, paperean nahiz pantailan ikasteaz duen iritzia ulertzeko gai izatea.

Mintzamenean

Ezagunen artean, eskera errazak egiteko gai izatea, gauza jakin bat duen galdetzeko.

Funtzioa:

Galde-erantzun errazak: zer duen eta zer behar duen adieraziz.

Azken ekintza:

Plan bat aurrera eramateko (hondartzara joan, festa batera joan, bainuetxe batera joan...) behar dituzten gauzak nork dituen aurkitu behar dute, horretarako duten fitxa osatuz eta nork zer duen idatziz jasoz.

1- IKUSI AURRETIK

1.1 Pantailan ala paperean?

Nork bere eskarmentutik, erantzuna eman diezaietela proposatutako galderei, geroago bideoan Josuk eta Amaiak egingo duten bezala.

Erantzunak ikasleen artean komentatuko dituzte, labur-labur.

2- IKUSI BITARTEAN

2.1. Kopiagailuan

Erantzunak: 1.- EGIA, 2.- EGIA, 3.-GEZURRA (astean behin egiten du kale), 4.- GEZURRA (Amaiak nahiago du pantailatik ikasi), 5.- EGIA.

2.2. Josuk ala Amaiak?

Erantzunak: 1.- Amaiak, 2.- Amaiak, 3.- Josuk, 4.- Amaiak, 5.- Amaiak, 6.- Josuk

Komeni da azpimarratzea Josu**K** eta Amaia**K** esan dituztela baieztapen horiek, hau da, NOR**K** kasua, hori baita gure helburu nagusia ikastunitate honetan.

2.3. Amaiaren mutil-laguna

B erantzuna da zuzena.

3- IKUSI ONDOREN

3.1 Jarri arreta hizkuntzan

Elkarrizketan Josuk behin baino gehiagotan esan duen zerbait ekarriko diegu ikasleei gogora: Amaiak nobioa dauka! Batetik, komentatu nobio hitza lagunartean erabiltzen dela, baina ahozkoan, batez ere. Idazteko garaian, senargaia edo mutil-laguna egokiagoak liratekeela. Bestetik, NORK kasuan fokalizatzeko eskatu ikasleei. segidan dituzten esaldiak ere horretarako dira. Kasu honetan, bideoan bezala, pertsona-izenekin -(e)K erabiltzen dela azpimarratu nahi dugu, besterik ez.

Erantzunak: 1.- MikeIEK/Miren; 2.- Josune/Jaione; 3.- XabiK; 4.- ItziarREK; 5.- PiliK; 6.- YolandaK; 7.- Kristina

3.2 Plan desberdinak

Lau fitxa daude aukeran: mendiko kanpina, hondartza, Glamour handiko festa eta bainuetxea. Fitxa horietako bakoitzean plan bat proposatzen zaie ikasleei, baita plana aurrera eramateko behar dituzten gauzen zerrenda ere. Lau fitzak osagarriak dira, bakoitzak falta duena beste norbaitek dauka. Bosgarren fitxa bat ere badago, plana nahiz behar diren eta dauzkaten gauzak hutsik dituen, nahi bezala bete dezaten, horixe baita beste aldaera posible bat. Hori bai, gerta liteke inork ez edukitzea besteek behar dutena edota irabazteko gezurretan aritzea... zeure esku dago prozedura zehaztea: modu itxian ala librean.

Behar duen guztia osatzen duen lehenak irabaziko du joko, baina ontzat emateko, nork zer daukan zuzen esan beharko du, ergatiboa ondo erabilita.

TRANSKRIPZIOA

AMAIA.— Josu, eskertzen dizut apunteak uztea.

JOSU.— Horixe bakarrik behar genuen! Zuk beti uzten dizkidazu eta.

AMAIA.— Astean behin ez naiz klasera etortzen eta zure apunteei esker ez naiz atzean geratuko.

Barkatu endredoa. Baina ni ez naiz eskola zaharrekoa, nik eskaneatuta nahi ditut zure apunteak.

JOSU.— Nik ez! Nik papera, ukitu, eskuetan hartu behar dut. Horregatik egiten ditut kopiak. Paperetik ikasi dut beti eta ez naiz aldatuko.

AMAIA.— Ba niretzat oso eroso da apunteak eskaneatu eta pantailan ikustea.

JOSU.— Beti ordenagailuaren aurrean, itsutu egingo zara!

AMAIA.— Bai zera! Begira, eskaneatzea eta kopiatzea oso antzekoak dira: papera hemen jarri, hemen sakatu eta zuzenean zure apunteak nire ordenagailura joango dira.

JOSU.— Oso-osoa interesgarria, bai!

AMAIA.— Eta gainera, ez da papera gastatzen, eta tinta ere ez.

JOSU.— Primeran, bai, primeran!

ETENA

JOSU.- Baina Amaia, astean behin zergatik egiten duzu kale fakultatean? Kontatu, kontatu...

AMAIA.— Ez dago sekretu berezirik.

JOSU.— Ez zera! Mutil-laguna daukazu!

AMAIA.— Nik?

JOSU.— Bai, seguru!

AMAIA.— Ez, ez, Josu, ez...

JOSU.— Bai, seguru, kontatu!

AMAIA.— Ezetz, ez zaitetz astuna izan!

JOSU.— Bai, eta goizean bakarrik daukazu ikusteko aukera, ezta?

AMAIA.— Aizu, zuk imajinazio handia daukazu, e!

JOSU.— Asmatu dut, ezta?

AMAIA.— Ba bai! Bi metroko mutiko mardula da, aizkolaria, eta kontuz: jeloskor jartzen bada, jipoi ederra emango dizu!

JOSU.— Amaia, kontatu!

AMAIA.— Ai, tira, Josu! Titiko umea ematen duzu!

JOSU.— Kontatu!

AMAIA.— Ai, Josu! Txorakeria bat da, eta kontatzeko asmotan nintzen, baina orain ez dizut ezer esango!!

JOSU.— Amaiak nobioa dauka, Amaiak nobioa dauka...!

AMAIA.- Xxxxxx, Josu!

JOSU.- Amaiak nobioa dauka...